

## EDITOREEN GALEUSCA, 2016. KONKLUSIOAK

Katalan, galego eta euskal hizkuntzetako editoreak, ekainaren 16an eta 17an, Valènciako Centre del Carmen egoitzan, editoreen GALEUSCA topaketan bildu dira, zeina País Valenciàko Associació d'Editors elkarteak antolatu baitu, Euskal Editoreen Elkartearekin, Associació d'Editors en Llengua Catalana eta Asociación Galega de Editores elkarteekin lankidetzan.

Elkarte horietan 200 argitaletxetik gora biltzen dira, eta urteko ekoizpena, hiru hizkuntzak bateratuta, hamabi mila bostehundik gora liburukoa da. Argitaletxe horiek oso positiboki balioetsi dituzte topaketa horiek, eta ondoko konklusio hauek hitzartu dituzte:

- 1- Elkarlan estuagoa bideratzea argitaletxeen artean, esperientziak eta estrategiak partekatuz, eta kalitatearen eta bibliodibertsitatearen aldeko apustua eginez.
- 2.- Bere ziurgabetasuna adieraztea argitalpen digitalaren negozio-eredu berriaren aurrean, eta haren irakunkortasuna bultzatuko duten bide berriak urratzen jarraitzea, baita hizkuntza koofizialetako argitalpenari ikusgaitasuna emango dioten mekanismoak sustatzea ere.
- 3.- Editore gisa dugun erantzukizunari eustea, gizarteari ahalik eta kalitate handieneko edukiak eskaintzeko, euskarria edozein ere delarik.
- 4.- Administrazio publikoak berriz ere presatzea kulturako BEZa arrazionaliza dezaten, eta neurri eraginkorrek har ditzaten jabetza intelektualaren defentsaren aldeko eta lapurreta desagerrarazteko borrokan.
- 5.- Mailegu digitaleko ereduaren aldizkako ebaluazioa egitea, administrazio publikoei eskatuz edukiak erostera bidera ditzatela beren baliabideak.
- 6.- Administrazio publikoei eskatzea liburua eta irakurketa sustatzeko programek izan dezatela gizarte-eragile guztien erantzunkidetasuna eta parte hartzea: familia, eskola, liburuaren sektorea, liburutegiak, etab.
- 7.- Elkarriketa eta inplikazio estuagoa ezartzea liburuaren balioaren katearen sektore guztien eta administrazio publikoen artean, liburua eta irakurketa egokiro balioetsi ditzaten kultura-prozesuen elementu dinamizatzaile nagusi gisa. Politika horiek plan estrategikoak abian jarri gauzatu behar dira, irakurzaletasuna sustatzeko xedeaz, eta bereziki azpimarratu behar dute nork bere hizkuntzan irakurtzea, hala nola autonomia-erkidego guztietan indarrean dagoen legedia garatzea eta aplikatzea.